

EUSKADIKO KADETEEN TXAPELKETA

TXAPELKETAREN ARAUAK

1. Txapelketa 6 txandataraz jokatu da Ratingean oinarritutako Suitzar Sistema erabiliz, 2007eko apirilaren 10a eta 14a artean. Swiss Manager programa erabiliko da parekatzeak egiteko, nahiz eta epaileek gainbegiratuko duten txanda bakoitzeko partiden zerrenda.
2. Partidak Eibarko Unibertsitate Laboralaren egoitzan jokatu dira ondorengo ordutegian:

Aurkezpena eta gelen banaketa:	apirilaren 10a (asteartea)	16:00
Epaile eta ordezkarien bilera:	apirilaren 10a (asteartea)	16:30
1go txanda	apirilaren 10a (asteartea):	17:00
2. txanda	apirilaren 11a (asteazkena):	9:30
3. txanda	apirilaren 11a (osteguna):	16:00
4. txanda	apirilaren 12a (osteguna):	16:00
5. txanda	apirilaren 13a (ostirala):	16:00
6. txanda	apirilaren 14a (larunbata):	9:30

Txanda guztien ordutegia, 1goarena izan ezik, apirilaren 10ean, partidak hasi aurretik epaileek eta jokalarien ordezkariak izango duten bileran erabakiko da, Egoitzaren ordutegiak jakin ostean.

Partehartze faltagatik txandaren bat ezabatu beharko balitz, apirilaren 11ko goizeko txanda ezabatuko da.

3. Hasierako rankingerako ordenazio irizpidea epaileek erabakiko dute partehartzaileen zerrenda ezagututakoan, hauen ratingen balioa ezagutu eta aztertu ostean.
4. Jokalariak 90 minutu izango dituzte partidarako, egiten duten jokaldi bakoitzarengatik 30 segundo gehituz.
5. Erlojuak goian esandako orduetan jarriko dira martxan, eta ordu horretatik ordu bete pasatzean etorri ez diren jokalariek guztiei partida galdutzat emango zaie.
6. Jokalari bat partida batera etorriko ez balitz arrazoirik eman gabe, txapelketatik egotziko genuke.
7. Epaile Nagusiaren erabakiak aldaezinak izango dira.
8. Lehen txandako partidak, txapelketaren irekiera saioan jakinaraziko dira. Gainontzeko txandetan, behar besteko aurrerapenarekin jakinaraziko dira.
9. Ez da onartuko Joko Gelan partiden analisirik egitea. Horretarako dago Analisi Gela. Bertara ezingo dira eraman txapelketako tablero, pieza zein erlojuak.

10. Guztiz debekatuta dago aurrez epaileak onartu gabeko eskuko telefono edo beste edozein gailu elektronikoko jokatzeko gelan sartzea. Partidak dirauten artean, jokalariren baten telefono edo beste gailu batek joko balu, jokalaria partida galdu egingo du. Epaileak erabakiko du zein izango den aurkariaren puntuazioa. Jotzea esaten denean, gailuak egindako edozein soinu edo bibrazio esan nahi da, deia, mezua, alarma edo beste edozein delarik zergatia.
11. Xakearen Legeek 8.1 eta 8.4 ataletan diotenari jarraituz, jokalariek ezin izango diote jokaldiak idazteari utzi partidan zehar.
12. Pertsona orok Joko Area utzi beharko du, epaileak hala eskatuta, bere lana erraztearren.
13. Arrazoiren batengatik Joko Area utzi behar bada, abisatu mesedez Epaile bati. Partida jokatzeko ari diren jokalariek ezin izango dute Analisi Gelara sartu.
14. Sailkapen eta sariak jasotzeko, berdinketak ondoko desberdintze sistemak aipatutako ordenean erabiliz desegingo dira
 - i. Buchholz brasildar zuzendua: aurkariaren puntuaren batuketa txikiena izan ezik (*).
 - ii. Buchholz zuzendua: aurkariaren puntuaren batuketa (*)
 - iii. Gainjarria: jokalaria bakoitzak txanda bakoitzean duen puntuaren batuketa. Berdinketa balego, lehenengo txandako puntuak kenduko dira, berdinketak jarraituko balu bigarren txandakoak, eta horrela, hurrenez hurren erabaki bat hartu arte.
 - iv. Irabazitako partida kopurua, ez-agertzeagatik garaipenak eta atsedanak kontuan hartu gabe.
 - v. Zozketa.(*) ikurra daukaten sistemak kalkulatzeko, jokatu gabeko partidak berdinketa moduan hartuko dira.
15. Epaile Nagusia Euskal Xake Federakuntzak izendatuko du eta nahi adina epaile laguntzaile izendatu ahal izango du. .
16. Txapelketan parte hartzeak oinarri hauek eta aplikagarri gerta daitekeen gainontzeko araudi guztia onartu eta betetzea esan nahi du.